

EAEko ELIKAGAIEN SEGURTASUNERAKO BATZORDE ZIENTIFIKOKO KIDE IZATEKO HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO DEIALDIA

Deialdi hau Giza Epidemiologian eta Osasun Publikoan (Giza Osasuna) adituak diren langile zientifikoentzat da, eta EAEko Elikagaien Segurtasunerako Batzorde Zientifikoko postu hori betetzea du helburu.

1. EAEko NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN SEGURTASUNERAKO BATZORDE ZIENTIFIKOA

Elikagaien Arriskuen Ebaluazioa jarduketa multzo bat da, eta horren bitartez, elikagaietatik eratorritako agente fisiko, kimiko edo biologiko batekiko esposizioak eragindako arriskuak kualitatiboki eta kuantitatiboki identifikatzen eta baloratzen dira eta herritarren osasunean izan ditzakeen arriskuak ebaluatzen eta ezaugarritzen dira.

Arriskuen Ebaluazioetan, beharrezkoa da aholkularitza zientifiko onena izatea. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoak **Elikagaien Segurtasunerako Batzorde Zientifikoa** du ([EHAA 63/2009 Dekretua](#)). Batzorde horrek EAEko administrazioari aholkuak ematen dizkio, nekazaritzako elikagaien katean sar daitezkeen arriskuak murriztu edo gutxitu ditzan eta, hala, jarduketa-eremu horretan hartzen diren erabakiek oinarri zientifiko bat izan dezaten.

2. BATZORDE ZIENTIFIKOAREN FUNTZIOAK

Batzorde Zientifikoak funtzio hauek ditu:

- Elikagaien arrisku berriak edo berriro agertzen direnak identifikatzea.
- EAEn elikaduraren segurtasunaren arloko arriskuekiko esposizioa aztertzea, arrisku horiek ezaugarrituz eta horiei lotutako zalantzak eta ezaugarritze horretan duten eragina detektatuz.
- Aholkatzea eta ebaluatutako arriskuen inguruko irizpen zientifikoak formulatzea.
- Parte hartzea eta Aditu Taldeek eginiko txostenak berrikustea.
- Batzorde Zientifikoak eginiko arrisku-ebaluazioak EAEko administrazioen aurrean aurkeztea.

3. BATZORDE ZIENTIFIKOKO KIDE IZATEKO ESKATZEN DEN PROFILA

EZINBESTEKO DA honako hauek izatea:

- Titulazioa Zientzia Biomedikoetan, ahal dela doktoregoa eta/edo graduondoko prestakuntza.
- Gutxienez 10 urteko esperientzia profesionala Giza Epidemiologian, Osasun Publikoan, Prebentzio Medikuntzan, Nutrizioan, Immunologian, etab.
- Esperientzia arriskuen ebaluazio zientifikoan eta/edo elikadurarekin eta elikagaien segurtasunarekin lotutako esparruetan aholkularitza zientifikoa ematen.
- Esperientzia ikerketan: eskatzen den arloarekin lotutako ikerketa proiektuetan eta argitalpen zientifikoetan eta/edo ikerlan zientifikoek berrikuspenean parte hartu izana.
- Ingeles-maila altua hitz eginez eta idatziz.

Honako hau baloratuko da:

- Arriskuak ebaluatzeko metodologian ezagutzak izatea.

- Taldean lan egiteko gaitasuna izatea.
- Komunikatzeko gaitasuna izatea.
- Diziplina askotako informazioak aztertzeo eta proiektuak eta txosten zientifikoak prestatzeko gaitasuna izatea.

4. INDEPENDENTZIA ETA KONFIDENTZIALTASUNA

Batzorde Zientifikoan parte hartzen duten pertsonak **banaka** izendatzen dira, eta inoiz ez dute lan egiten duten erakundea ordezkatzeko.

Arriskuen Ebaluazioaren prozesua arrakastatsua izan dadin, Batzorde Zientifikoa osatzen duten kide guztiek **inpartzialak** izan behar dute prozesu osoan zehar eta **ezin da interes-gatazkarik egon**. Horrez gain, Arriskuen Ebaluazioa egitean, **konfidentzialak** izan daitezkeen esperientziak, datuak eta ezagutzak partekatzen dira, eta ezin dira zabaldu. Era berean, prozesuan parte hartu dezakete beren lanen eta ikerketen **jabetza intelektualaren eskubidea** duten adituek.

Hori dela eta, EAEko Elikagaien Segurtasunerako Batzordeko kide gisa parte hartzeko, ezinbestekoa da inpartzialtasunari, interes-gatazken gabeziari, konfidentzialtasunari eta jabetza intelektualaren eskubideei buruzko **klausula** bat sinatzea, baita egon litezkeen **interesen aitorpenari** buruzkoa ere.

5. HAUTAKETA-PROZESUA

Eskaerak Batzorde Zientifikoko Idazkaritza Teknikoak bildu eta aztertuko ditu, hau da, [Elika](#)-k, Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioak. Eskaerak ezarrita dauden hautaketa-irizpideei jarraikiz ebaluatuko ditu, eta lortutako puntuazioaren arabera proposatuko dizkie Batzorde Teknikoei ([EHAA 63/2009 Dekretua](#)) plaza hutsa betetzeko hautatu diren pertsonak.

Honako hauek izango dira hautaketa-irizpideak:

- Bikaintasun zientifikoa deialdiaren arloan (30 puntu).
- Esperientzia profesionala deialdiaren arloan (30 puntu).
- Esperientzia Arriskuen Ebaluazioan (20 puntu).
- Trebakuntza: graduondokoa deialdiari lotutako arloetan (10 puntu).
- Beste hizkuntza batzuk jakitea (5 puntu).
- Beste batzuk, adibidez komunikatzeko gaitasuna: ahozko komunikazioetan, hitzaldietan, mintegietan, eskola magistraletan eta halakoetan parte hartu izana (5 puntu).

Azkenik, Elikagaien Segurtasunerako Kudeaketa Batzordeak ([EHAA 63/2009 Dekretua](#)) onartuko du **Batzorde Zientifikoaren behin betiko osaera**, eta **5 urteko indarraldia** izango du.

Hautagaitzak jasotzeko epea amaitu eta hilabeteko epean, eskaera guztiei erantzungo zaie, hautatuak izan ala ez. Hautatu ez diren baina eskatutako baldintzak betetzen dituzten hautagaiak **adituen zerrenda** batean sartuko dira, eta arrisku zehatzen ebaluazioak edo egoera-txostenak egiteko sortzen diren Aditu Taldeetan parte hartzeko deitu ahal izango zaie.

6. BILERETARA BERTARATZEA

Urte hasieran finkatuko dira Batzorde Zientifikoaren **ohiko bileren** egunak (urtean bi bilerak, ziur asko). Ezinbestekoa da batzordean parte hartzen duten pertsona guztiak bileretara joateko prest egotea. Era berean, kontuan izan beharko da bilerek prestakuntza-lan handia eskatzen dutela. **Bilerak**

ELIKAREN (Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa) **egoitzan egingo dira**, Arkauten (Gasteiz).

Batzorde Zientifikoko kideei, haien lana ordaintzeko, **200 euro emango zaizkie bilera-egun oso bakoitzera bertaratzeagatik, eta 100 euro dokumentua prestatu eta berrikusteagatik**. Bidaiei gastuak eta dietak ere ordainduko zaizkie.

7. ESKAERA EGITEKO PROZEDURA

Deialdia Elikaren webgunean eta beste webgune instituzional batzuetan argitaratuko da. Halaber, deialdiaren publizitatea egingo da dagokion elkargo profesionalean, unibertsitate nagusietan eta ikerketa-zentroetan.

Eskaerak online formula honen bitartez bidali beharko dira ([lotura](#)). Formulario horretan, **eskaera-orria** bete behar da, eta **curriculum vitae**a atxiki.

Hautagaitza guztiak konfidentziasunez tratatuko dira.

8. ESKAERAK AURKEZTEKO AZKEN EGUNA

Eskaerak eta *curriculum vitae*a aurkezteko azken eguna **2018ko apirilaren 16a** izango da. Egun horretatik aurrera jasotzen diren eskaerak ez dira onartuko.